

Koldo Zubeldia, Zaldibiko poeta

Ekaitz GOIKOETXEA

1956an jaiotzen Nãñarripean, hire Zaldibi maitean. Paregabeko inguruari eta ingurukoei emana, Beasaingo Txindoki institutuan egin hituen batxilergoko ikasketak. Zuzenbidea ikasten hasi, baina euskararen zokondoetan murgildu hintzen Euskaltzaindiaren titulua ateratzeko alfabetatze eskolekin. Irakasle titulua atera, eta 1981ean hasiko hintzen Martuteneko itzultzaile eskolan itzulpengintza ikasten. Orduan erne zitzaian idazle bokazioa, eta loratu poeta sena.

Zaldibiko semea ez ezik, Goierriko kasta ere bahintzen, eta hain zuzen ere, hainbat goierritar sortzailek *Goierriko kasta* modura eskaini genituen errezitaldian sakondu eta indartuko genian elkarrekiko ezagutza. Eta geroztik, bereziki maite hituen dozena erdi-hamar bat laguni bezala, sarri-sarri deituko higun Irati arrebari eta bioi bizi hintzela jakiteko (hik eta guk), “zazpi poema berri idatzi ditut eta prest nago”. 17 segundoko solasa, ez kaixo eta ez agur, nahikoa, bizi hintzela jakiteko. Hik, eta guk.

Eta poemari poema, autoedizioaren bidetik argitaratuko hituen 2005ean hire lehen liburua, *Alamartxo ahanzia* (Erroteta), eta geroago, *Sentimenduen erresuma* (2007), *Ehotako fantasien errota* (2008), *Antologia poetikoa 1984-2009* (2009), *Aralar, gogoko iturri* (2011), *Seigarrena sei* (2012), *Antologia II* (2013), *Harriaren tasunak* (2017) eta *Bederatzigarrena bederatzi* (2020).

Eta bidean ikusi eta ikasiko genian bihotzean ez ezik, mihian maite hituela Zaldibiko hitzak, eta nekez huts egingo hiola Beasaingo gasolindegiko goizean goizeko kafesnari, eta hilabetean behingo Koldo Mitxelenaren liburutegiko bisitari, eta Hatsaren poesiari, eta Lizardiren baratzari, eta... eta, handia zela eta dela Zaldibiko poeta.

Itaka ere maite huen, eta hogeita hamaika eskutik nahi eta behar izaten huenez, hogeita hamaika aldiz izan genian hi Segura Irratiko gure saioan elkarrizketatu eta hire olerki eta bizipenak berdinek gabeko sa-

kontasuna zuen ahotsean gozatzeko plazera. Eta hire gaixotasun eta beheraldiez arituko hintzen, edo Gabriel Kortarekin elurra galtza motzetan ikusi zenutenekoaz, edo aberriaz, edo euskaraz, edo kukuaz, edo hila-bete amaierara gehiegizko itomenik gabe iritsi izanak eragiten zian pozaz, edo politikaz, edo kontsumo gizarteaz... Aske eta libro. Libro, bai, tarteka hiruzpalau poema oparitzen bai hizkigun hire liburuetatik.

Eta orain, sarri-sarri itzultzen gaituk urteotan irrati nahiz bestelako uhinetan utzi hizkigun uharetara. Besteak beste, harribitxi hauetara. Eskerrik asko, Koldo, Zaldibiko poeta!

Koldo Zubeldiaren lau poema, Ekaitz Goikoetxeak hautatuak

Malportak Elorrion
San Juan loreak Amurrion
Kamamila Enerion
Oteak Andurion
nik nahi al duzue jakin zer nirudion
Artxabeletik gora dena dela on
dagoenean bonbon
ez dagoenean egon
eta beste guztia hor konpon.

(*Alamartxo ahantzia*, 2005)

* * *

O filantropia
O fameli bukolikoa
O nere fameli filantropiko bukolikoa
O artzaien bizitza neketsua
baserria
gora gure herria
miresmenezko Euskal Herria
suntsitu nahi diguten aberria
goiz antsiz asegaitz egarria.
Xahutu zaidan goi argia
intzez blaitutako zelaia
Eta arbasoak erabilitako laia

(*Seigarrenean sei*, 2012)

* * *

O Zaldibi
Euskera
Nire hizkuntzaren harrobi
Hamabi
Oskarbi zara gaueko zerua
Suntsikor egunez
Euritsu
Distiratsu errukior
Betiereko hori.

(*Seigarrenean sei*, 2012)

* * *

Poeta naiz apasionatua
Sendo samarra dut gorputza
Eta ona bihotza
Lo puska bat zor diot nire buruari
Hustu naiz malkoen artean negarti
Izugarri sartzen ari zait ausardi
Ondo bizitzeko ez nago gertu
Eta egin behar dut sortu eta sortu
Eutsi eta eutsi
Eta ez etsi.

(*Harriaren tasunak*, 2017)